

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala**62. zenbakia****Data 2008-04-02****9787 orria****7 UDAL ADMINISTRAZIOA****DONOSTIAKO UDALA****Hiriko Giza Kontseiluaren Erregelamendua. Behin betiko onespena.****DONOSTIAKO UDALA****Idazkaritza Nagusia***Hiriko Gizarte Kontseiluaren Arautegi Organikoaren behin betiko onespena.*

Donostiako Udalbatzak, 2006ko uztailaren 26an egindako osoko bilkuran, Hiriko Gizarte Kontseiluaren Arautegi Organikoa behin-behingo onartu zuen.

Hasierako onarpen horren iragarkia 2006ko abuztuaren 16an Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, espedientea jendeaurrera ateraz, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, 30 laneguneko epean.

Halaber, iragarkia Udaleko Iragarki Oholean ikusgai egon zen epe berberean.

2006ko irailaren 20an epea amaituta, zenbait alegazio aurkeztu ziren eta hauetako batzuk Udalbatzak onartu egin zituen, 2008ko urtarrilaren 29an egindako bileran, Gizarte Kontseiluaren Arautegi Organikoa behin betikoz onartuz.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari eta ados ez dagoenak bi hilabete du errekurtsioa jartzeko Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Sailaren aurrean.

Emandako epea argitalpen hau eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da.

Legea 7/1985, apirilaren 2ko Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzeko 70.2 artikuluan agintzen duena betez, bestetik, behin betiko onartutako Gizarte Kontseiluaren Arautegi Organikoa argitara ematera goaz.

Donostia, 2008ko martxoaren 26a.—Iñaki Txintxurreta Perdiguero, Donostiako Udaleko Behin Behingo Idazkaria.

(485) (3455)

**HIRIKO GIZARTE KONTSEILUAREN
ARAUTEGI ORGANIKOA****HITZAURREA**

Azken urte hauetan agerian geratu da Donostiako Udal Gobernuak borondate politiko garbia duela herritarren erakundeek eta, oro har, herritarrek berek udal bizitzaren kudeaketan parte har dezatela ahalbidetuko duten bide berriak sortzeko. Izan ere, lotura garbia eta sendoa dago herritarren partaidetza garztearen eta mekanismo berri eta hobek sustatzearen artean.

Beste alde batetik, gobernagarritasun berri bat bilatu nahian ordezkari bidezko demokraziaren funtzionamendua indartzeko sustatzen diren zuzeneko partaidetza moduek harreman estua gordetzen dute XXI. mendeko gizartearen bilakaerarekin. Tokiko demokrazia, demokrazia orokorra bezalaxe, ez da mugiezina. Udalaren eginkizuna eta betebeharrak ere garatuz doaz, errealtate horren arabera: Une jakin batean egokitzen jotzen diren irtenbideak eta metodologiak egiaztatu egin behar dira eta, hala egokituz gero, gizartean gertatutako aldaketan arabera egokitu egin behar dira. Informazio gehiago, partaidetza gehiago eta gardentasun gehiago eskatzen da erabaki politikoak hartzeko garaian.

Alde horretatik, tokiko demokraziaren kalitatea hobetzeko eta gizarte eta ekonomia arloko eragileak hiriaren lidergoan parte hartzera bultzatzeko helburua hartu dute Europako hiriburu konprometituenek, formulazio berritzaileen bidez demokrazia parte-hartzaileago bat indartuz.

Eduki ditzakegun desberdintasunez haratago, badira kezka batzuk, hiri guztiok partekatzen ditugunak. Alde batetik, hortxe dago Udalek erakusten duten jarrera eraginkorra, gizarte-kohesioa bultzatzen tresna gisa jokatzen duen papera bere gain hartzeko, gizarte orokorraren testuinguruan halaxe ezartzen zaielako, eta beste alde batetik, herritarren eta tokiko gobernuaren arteko harremanak hobetzea eta hiriaren politika kudeatzeko orduan partaidetza zabalagoa edukitzea, bereziki garrantzi handia duten erabakietan.

Testuinguru honetan, beharrezkoa da herritarren partaidetzari heltzea udal bizitza publikoaren gai handietan, eta era horretan, Donostiako eta beste hiri batzuetako esperientzia arau honen bidez jaso, izaera

estrategikoa duten Herritarren Kontseilu edo Foroei begira.

Honez gain, Hiriko Gizarte Kontseilua Donostiako plangintza estrategikoaren eta diseinatutako estrategiatik etorritako proiektuen inguruko elkarte, azterketa eta sustapena egiteko esparru bihurtu da.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 1.1 artikulua hitzez hitz dioen moduan, herritarrek gai politikoetan parte hartzeko biderik eskuraerazanak dira Udalerriak, dagozkion kolektibotasunen berezko interesak autonomiaz kudeatzen dituztelako eta erakundeen arlora ekartzen dituztelako.

Gainera, Udal Gobernu Modernizatzeko 57/2003 Legearen ondoren, jauzi bat egin beharra dugu parte hartzeko moduak eta baliabideak gero eta konplexuagoa den eta gero eta sektoreetan banatuago dagoen gizarte baten eskakizunetara egokitzeko prozesu horri begira, hiria sendoagoa egiteko eta aurrerabidean jaritzeko ahaleginak berarekin baitakar eragile publiko eta pribatu desberdinen arteko inplikazioa, koordinazioa, eta halaber, baita ekarpenak egin beharra ere.

Gizarte zibilaren barruan dauden entitate, kolektibo, eragile eta elkarteak funtsezkoak dira demokraziaren kultura aberasteko eta jardunbide parte-hartzaileari bultzada emateko. Donostiako Udalak zenbait esperientzia gauzatu ditu dagoeneko, eta era berean, lan-tailer bat egin du adituekin eta herritarren erakundeetako ordezkariekin, egun dauden partaidetzarako egiturak berritzeko asmoz, batez ere Gizarte Foroa deiturikoa, eta halaber, 57/2003 Legearen funtzio berrietara egokitzeko asmoz.

Hiriko Gizarte Kontseiluaren sorrera, hiriari dagozkion gaien inguruko partaidetza eta deliberazioa burutzeko kontsultarako organo goren kontsideratzen du arautegi honek.

Legearen ikuspegitik, Konstituzioaren 9.2 artikulua berariaz jasotzen duen bezalaxe, botere publikoek partaidetza hori errazteko eta sustatzeko eginkizun garrantzitsua bete behar dute arlo politikoan, ekonomikoan, kulturalan eta sozialean.

Udal Gobernuak Modernizatzeko Legeak (57/2003) ondorengo dio 131. artikuluan: «1. Titulu honetan adierazitako udalerrietan, Gizarte Kontseilu bat izango da, ekonomia, gizarte, lanbide eta auzo elkarte garrantzitsuenetako ordezkariak osatua. 2. Kontseilu honi egokitu zaio, Udal Batzarrak arau organikoen bitartez zehazten dituen eginkizunetaz gain, tokiko garapen ekonomikoaren, hiriko plangintza estrategikoaren eta hiri-proiektu handien inguruan txostenak, azterketak eta proposamenak egitea».

Beste alde batetik, 1979ko abenduaren 18ko Lege Organikoaren bidez onetsitako Euskal Herriko Autonomia Estatutuak 9-e artikuluan dio botere publikoek, beren eskumenen esparruan, «Euskal Herriko politika, ekonomia, kultura eta gizarte alorretako bizitzan hiritar guztien parte-hartzea erraztuko dutela».

Europar Batasunak gomendatzen duenez, erabaki politikoetan parte hartzeko herritarrek duten eskubidea herri mailan gauzatzera da modurik eraginkorrenean, eta beraz, herri mailako gai handien kudeaketan zuzenean parte hartzera bultzatzeko baliabideak sortu behar ditugu.

Alde horretatik, Donostiako Udalak, herritarrengandik hurbilen dagoen Administrazioa den aldetik, eta demokrazia parte-hartzailea garatzen laguntzeak duen garrantziaz jabeturik, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 4.1 artikulua eta A.J.A.ren 4. artikulua oinarritzat harturik, Hiriko Gizarte Kontseiluaren funtzionamendurako Arautegi Organiko honen arauak ezarri ditu.

Baina ez dira organismo honetan ahitzen parte hartzeko bideak, izan ere, arau honen osagarri gisa, Udalak Herritarren Partaidetzarako beste Arautegi batean finkatuko baititu udal bizitzaren kudeaketan zabalitzen diren mekanismo desberdinak.

Hiriko Gizarte Kontseiluaren funtzionamendua eta jarduera Arautegi honek ezarriko du, eta horren ordez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Arruntaren gaineko azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoak.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Definizioa.

Donostiako Hiriko Gizarte Kontseilua parte hartzeko aholkularitza-organorik goren da, eta bere eginkizunak honako hauek dira: Informazioa ematea, aztertzea, eztabaidatzea eta aholkuak ematea udal politikaren ildo nagusiak finkatzeko, gure hiriaren garapen estrategikoari, ekonomikoari, sozialari eta kulturalari eragiten diotenean.

2. artikulua. Xedea.

Bere helburua eragile sozio-ekonomikoen, erakundeen eta herritarren arteko gogoeta bateratua sustatu eta bideratzea da hiriaren iraunkortasunarekin, gizarte-kohesioarekin eta garapen ekonomiko, sozial eta kulturalarekin zerikusirik duten gai handien inguruan, eta bereziki, hiriaren etorkizuneko estrategiaren eta proiektu handien inguruan. Betiere, herritarren elkarrekin artean eta, azken batean, Donostiako herritar guztien artean erantzukizun partekatua handiago bat sustatzeko helburuz.

Gizarte Kontseilua, hirian dauden partaidetzarako kontseilu sektorial, egitura eta organismo desberdinen

arteko koordinaziorako espazio bat ere bada. Ikuspegi eta interes desberdinak dituzten baina helburu bera erdietsi nahi duten eragileek elkar topatuko duten partaidetza-sarearen ardatz nagusia izan nahi du, eta helburu hori hauxe da: Donostiako herritarren bizi-kalitatea hobetzearen alde esku hartzea eta elkarrekin lan egitea.

3. artikulua. Jarduteko lurralde-eremua.

Jarduera-eremua udalerrria izango da. Halaber, Hiriko Gizarte Kontseiluak horren aldeko elkarlana sustatuko du eta bere eskumeneko gaietan, udalaz gaindiko izaera eta/edo izaera metropolitarra duten erakunde eta entitateei luzatuko die bere gogoeta, baita beste hiri batzuei ere, Sare itxuran edo aurrerago erabaki litezkeen beste modu batzuetan.

4. artikulua. Helburua.

Oro har, hiriko Gizarte Kontseiluaren helburuak dira ondorengo gaiak:

- Plangintza estrategikoaren plan eta agiriak.
- Garapen ekonomikoari eragiten dioten erabaki handiak.
- Iraunkortasun-politikari eragiten dioten erabaki handiak.
- Hiria edo hiri-multzoaren Proiektu estrategikoak.

— Hirigintza Planeamendu orokorra, Proiektu estrategikoei edo hiri-proiektu handiei eragiten dien neurrian.

— Udal Aurrekontuen irizpide orokorrak, horien azterketa eta horien jarraipena.

— Udalak edo herritarrek eskaturik egin nahi diren herri-kontsultak antolatzeari buruzko aholkularitza-lan bat egitea.

5. artikulua. Eginkizunak.

Bere eginkizunak –azalpen gisa hartuak– honako hauek izango dira:

a) Donostiarentzat interesgarri diren erabaki handietan herritarrek eta herritarren erakundeek parte har dezatela sustatzea.

b) Erakunde ekonomiko, kultural, profesional eta sozialak elkarrekin eta Udalarekin lankidetzan aritu daitezela bultzatzea, hiriaren sendotze ekonomikoa eta gizarte-kohesioa erdiesteko asmoz.

c) Donostiaren sustapen ekonomikoan eta sozialean eragin positiboa duten ekimen guztiei, bai publikoei eta bai pribatuei ere, bultzada ematen elkarlanean aritzea.

d) Proiektu estrategikoak gauzatu daitezela sustatzea eta horien jarraipena egitea, horretarako sortutako - Batzorde Delegatuaren bitartez.

e) Eztabaida sustatzea, ekimenak proposatzea, azterketak eginaraztea, eta Gizarte Kontseiluaren xedearekin harremana duten proposamenak edo iradokizunak Udalari egitea.

f) Donostiako Plan Estrategikoa eztabaidatzea eta jarraipena egitea, Batzorde Delegatu horrek proposaturik.

g) Alkateak, Udal Batzarrak edo Gizarte Kontseiluak berak eskaturiko gaien inguruko Txostena egitea.

h) Udal Ekintza Plana, ordenantzak edo izaera orokorra duten beste xedapen batzuk ezagutu eta eztabaidatzea.

i) Udal Aurrekontuak eta beren exekuzioaren emaitzak ezagutzea.

j) Hiriko Kontseilu Sektorialei laguntza ematea eta beren ondorio, ekimen eta erabakien berri izatea.

k) Hiritarren ekimenak proposatzea, audientzia publikoen deialdiak eskatzea eta prozesu parte-hartzaileen, hiritar kontsulten eta erreferendumen sustapena proposatzea.

l) Hirirako interesgarriak diren gaiei buruzko ikerketak egin daitezzen proposatzea eta emaitzen inguruko eztabaida sustatzea.

m) Urteko txostena egitea, hiriaren egoerari buruzko gogoetak, etorkizuneko aukerak eta jardueraren proposamenak azaltzen dituen Memoriarekin batera.

n) Udal Batzarrak arau organikoaren bidez zehazten duen beste edozein funtzio.

II. TITULUA

ANTOLAMENDUA

6. artikulua. Kontseiluaren Organoak.

Hiriko Gizarte Kontseiluaren egitura-organoak ondorengoak dira:

- Batzarra.
- Batzorde Iraunkorra.

- Lan Batzordeak.
- Plan Estrategikoaren Batzorde Delegatua.

7. artikulua. Bertako kideak edo partaideak izendatzeko irizpideak.

Gizarte Kontseiluaren partaideak hautatzeko irizpideek kontuan izan behar dute ekonomiaren, kulturaren, gizartearen eta auzoko gaien alorreko erakunde eta kolektiboak daudela, beren elkartze-aniztasuna, hiriaren pluralismoa eta gizarte-aniztasuna.

Erakundeetako ordezkari berriak Kontseiluan sartu ahal izateko, Gizarte Kontseiluaren Batzarrak, bertako egungo kideren batek proposaturik, aldez aurretik erabaki bat hartu beharko du, eta hori Udalbatzarrari jakinaraziko dio, hark berrets dezan.

8. artikulua. Batzarra.

Kontseilua osatzen duten eta bilkuretan hitz egiteko nahiz botoa emateko eskubidea duten pertsona guztiak eratuko dute: Kultur erakundeetako ordezkariak, ekonomiaren eta enpresaren sektoreetakoak, auzo-elkarteetakoak, unibertsitate-sektorekoak, udal-talde politikoak, gizarte- eta kirol-arloko mugimenduak, sindikatu eta eragile desberdinak, Erakundeak eta Kontseilu Sektorialak. Horiek guztiak Kontseiluaren Batzarraren parte izango dira, hiri guztiak behar bezalako ordezkari izan dezan.

Honako kideak izango ditu:

— Lehendakaria; Gizarte Kontseiluak burutzen dituen eginkizunekin loturik garrantzi nabarmeneko ibilbidea egina duen pertsona bat, Batzarrak demokratikoki aukeratua.

— Lehendakariordea: Gizarte Kontseiluko kideen artetik aukeratua.

— Alkatea.

— Herritarren Partaidetzako Zinegotzi Delegatua.

— Udal talde politiko bakoitzeko zinegotzi bat.

— Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkari bat.

— Eusko Jaurlaritzako ordezkari bat.

— Kontseilu Sektorial bakoitzeko ordezkari bat, bertako kideen artetik aukeratua, zinegotziak salbu -utziz.

— Udal Erregistroan inskribatuta dauden auzo-elkarteetako hiru ordezkari, daudenek beren artetik aukeratuak.

— Hiriko auzo desberdinetako sei herritar, hauteskunde-errolatik ausaz aukeratuak.

— Hirian ospe handia duten hiru pertsona, Urrezko Domina eta Herritar Merezimenduaren Domina jaso dutenen artetik aukeratuak, egoki denean kolektiboak berak izendatuak.

— KUTXAko ordezkari bat, Udalak finantza-erakunde honen fundazioan parte hartu duen aldetik.

— Mondragon Corporación Cooperativako ordezkari bat.

— Gipuzkoako Ganberaren ordezkari bat.

— Elkargo Profesionalek beren artetik aukeratutako ordezkari bat.

— Donostian egoitza duten Unibertsitate bakoitzaren (EHU, Nafarroako Unibertsitatea eta Deustuko Unibertsitatea) ordezkari bana.

— ADEGIko ordezkari bat.

— ELA, UGT, LAB eta CCOO sindikatuek ordezkari bana.

— Donostiako Plan Estrategikoaren Zuzendaria.

— Lurraldean zabalkunde handiena duen egunkariko ordezkari bat.

— Entzule gehien duen udal irratiaordezkari bat.

— Añarbeko Mankomunitateko zuzendaria.

— San Marko Mankomunitateko zuzendaria.

— Pasaiako Portuko Zuzendaritza.

— RENFEko lurralde-ordezkaria.

— Euskotreneko lurralde-ordezkaria.

— dbus-eko zuzendaria: Donostiako Tranbia Konpainia.

— Aireportuko zuzendaria.

- Tabakalerako Zuzendaria- CICC.
- Gipuzkoako Fundazio Ozeanografikoko Lehendakaria.
- Donostia Internacional Physic Centre Fundazioko Lehendakaria.
- Matia Fundazioko Lehendakaria.
- Donostiako Teknologi Elkartegiko Zuzendaria.
- Zuatzu Enpresa Parkeko Zuzendaria.
- Gipuzkoako Merkataritza Federazioko ordezkari bat.
- Minusbaliotasun fisikoak dituzten pertsonen Koordinakundeko ordezkari bat.
- Ostalaritza Elkarteko ordezkari bat.
- Etorkinen kolektiboak bere artetik aukeratutako ordezkari bat.
- Ikasleen Guraso Elkaratek beren artetik aukeratutako ordezkari bat.
- Familia Ugarien Elkaratek beren artetik aukeratutako ordezkari bat.
- Real Sociadadeko Lehendakaria.
- Kirol Federazioek beren artetik aukeratutako ordezkari bat.

Erakunde bakoitzak ordezkari bat izendatu ahal izango du.

Adierazitako ordezkariak erakunde edo elkarte bakoitzak demokratikoki aukeratu beharko ditu.

9. artikulua. Karguak berritzea.

Alkateak eta Udal Batzarreko ordezkari politikoek kondizio hori izateari uzten diotenean utziko dituzte karguak, eta beren funtzioen betetzean ordezkariak dituztenek ordezkariak dituzte. Kontseiluko gainerako partaideek, berriz, ordezkariak dituzten erakundeek egoki dela jotzen dutenean egingo dute, ospe handiko 6 pertsonen kasuan eta zozketa bidez hautatutako 6 herritarren kasuan izan ezik, Udal Batzarra aldatzearekin batera berrituko baitira horiek.

10. artikulua. Batzorde Iraunkorra.

Lehendakariak, Lehendakariordeak eta Batzarrak bere kideetako edozeinen proposamenez aukeraturiko 13 partaidek osatuko dute, kolektibo desberdinen ordezkari gisa.

Batzorde Iraunkorreko erakunde guztien eta partaide guztien ordezkariak bermatzeko asmoz, Udal Batzarra aldatzearekin batera berrituko dira karguak, 4 urtean behin.

11. artikulua. Lehendakaritza.

Hiriko Gizarte Kontseiluaren Lehendakaritza Gizarte Kontseiluak egiten dituen funtzioekin erlasionaturiko ibilbide aipagarria duen pertsonaren bati egokituko zaio, eta Udal Batzarrak aukeratu du demokratikoki.

Lehendakaritzaren eginkizunak izango dira honakoak:

- a) Batzarrerako deialdia egitea.
- b) Bilkuretan mahaiburu gisa aritzea.
- c) Batzarreko eztabaidak gidatzea.
- d) Udal Batzarraren funtzionamendu egokia bermatzea.
- e) Kontseiluaren ordezkariak egitea.
- f) Batzarreko Lehendakaritzak, edo Batzorde Iraunkorrak berezkoak dituen gainerako eginkizunak edo Gizarte Kontseiluak berak edo bere Batzorde Iraunkorrak izendatzen dizkionak burutzea.

12. artikulua. Lehendakariordetza.

Gizarte Kontseiluko kideen artean aukeratutako pertsonak hartuko du lehendakariordetza.

Lehendakaria ez badago, Lehendakariordea izango da haren eginkizunak beteko dituena.

13. artikulua. Idazkaritza.

Kontseiluko Osoko Bileraren eta Batzorde Iraunkorraren Idazkaritza Udaleko Idazkari Nagusiari egokituko zaio, edo horrek eskuordetzen duen pertsonari, hitz egiteko bai baina botoa emateko eskubiderik gabe, eta bere karguak berezkoak dituen eginkizunak egingo ditu, baita Lehendakaritzak izendatzen dion beste edozein ere. Plan Estrategikoaren Bulegoaz eta Partaidetzarako Udal Areaz baliatuko da bere eginkizunak hobeto bete ahal izateko.

III. TITULUA

FUNTZIONAMENDUA

14. artikulua. Batzarra.

Lehendakaritzak Batzarrerako deialdia egingo du, izaera arruntez urtean hiru aldiz gutxienez, eta ez-ohiko izaeraz egoki irizten dionean, edo boto-eskubidea duten kideen heren batek formalki hala eskatzen duenean.

Bilkurak balio osoz eratuta geratuko dira lehen deialdian, boto-eskubidea duten bertako kideen erdiak eta bat gehiago bertan daudenean, eta bigarren deialdian, ordu erdi geroago, Kontseilua osatzen duten pertsonen heren bat gutxienez bertan dagoenean. Beti beharrezkoa izango da Lehendakaritzaren eta Idazkaritzako titular den pertsonaren presentzia, edo horiek ordezkatzeko dituztenena.

Idazkaritzak gutxienez 15 egun lehenago egingo ditu deialdiak, eta ez-ohiko deialdiak, berriz, berrogeita zortzi ordu lehenago, bilkurako gai-zerrendarekin, egingo den egun, ordu eta lekuarekin eta behar diren agiri guztiekin batera.

Kontseiluaren bilkurako aktak bertako partaideei eta hiriko erakunde eta elkarte guztiei bidaliko zaizkie, eta laburpen bat argitaratuko da Udalaren komunikazio-euskarri desberdinetan.

Bilkura horietara joan ahal izango dira, gonbidapena baldin badute, Udaleko zuzendaritzako kideak edo aztertu beharreko gaiekin zerikusia duten erakundeetako ordezkariak, hitz egiteko bai baina botoa emateko eskubiderik gabe, Lehendakaritzak baimena eman ondoren. Bilkurak publikoak izango dira eta edozein hedabideren bitartez eman ahal izango dira.

Batzarraren erabakiak eta adierazpenak horien inguruko adostasun bat bilatu nahirik hartuko dira. Hala ez bada, gehiengo sinplez hartuko dira.

15. artikulua. Batzorde Iraunkorra.

Lehendakaritzak egindako deialdi baten bidez elkartuko da gutxienez urtean lau aldiz izaera arruntez, eta egoki jotzen den guztietan ez-ohiko izaeraz, Lehendakaritzak edo berau osatzen duten partaideen heren batek hala proposaturik.

Batzarraren funtzionamendu egokia ahalbidetzen duten baliabideak antolatzearen ardura duen organoa - Batzorde Iraunkorra da, eta bereziki, honakoak izango dira bere ardurak:

- Batzarraren eguneko gai-zerrenda egin eta bilkurak prestatzea.
- Erabakiak, Adierazpen-proposamenak eta Batzarraren eskumen diren gaiei buruzko txostenak prestatzea.
- Lan Batzordeak edo sortzen diren Taldeak koordinatzea.
- Batzarrak izendatzen dizkion gainerako eginkizunak.

16. artikulua. Lan Batzordeak.

Gizarte Kontseiluaren Batzarrak gaien araberrako Lan Batzordeak sor daitezela erabaki ahal izango du, izendatu zaizkion eginkizunak hobeto prestatzeko beharrezkoak baldin badira. Ez da beharrezkoa izango hiriko Gizarte Kontseiluko partaide izatea Batzorde horietako partaide izateko.

17. artikulua. Beste lankidetzaren modu batzuk.

Gizarte Kontseiluak lankidetzaren hitzarmenak egin ahal izango ditu beste hiri batzuetako antzeko erakundeekin eta/edo lurralde-erakundeekin, esperientziak trukatzeko eta beren helburuak hobeto erdiesteko.

IV. TITULUA

18. artikulua. Plan Estrategikorako Batzorde Deleatuaren eginkizuna.

Ekonomia eta gizarte arloko erakunde eta eragileen arteko topaketa ahalbidetuko duen tresna bat eskuratu behar du hiriak, Plan Estrategikoan diseinatutako helburuak betetzeko eta proiektu gidari handiei bultzada eman eta horien jarraipena egiteko.

Plangintza estrategikoak etorkizuneko erronkei buruz eta hiri-ereduari buruz eztabaida-ahalegin bat egitea eskatzen du, baita hiriaren eta metropoliaren proiektu estrategikoak gauzatzeko moduari buruz ere.

Hiriaren Gizarte Kontseiluko Batzarrari lotua, eta bere eginkizun zehatzagatik, Plan Estrategikorako - Batzorde Deleatua eratu da, orain arte Planaren Batzorde Betearazlea izenekoak egin izan dituen lanei jarraipena emateko.

19. artikulua. Bere eginkizunak:

a) Donostiako eta bere Hiri Komunitateko sektorearen eta lurraldearen plangintza estrategikorako prozesuaren jarraipenean, azterketan eta exekuzioan parte hartzea. Alde horretatik, eztabaida bultzatu eta, Gizarte Kontseiluarekin koordinaturik, Hiriko Plan Estrategikoaren alderdi garrantzitsuenei buruzko azterketak eta txostenak egitea sustatuko du.

b) Hiriko Gizarte Kontseiluaren aurrean hiri proiektu handien nondik norakoaren berri ematea, eta

proiektu berrien sorgune gisa jokatzea. Halaber, Donostiaren eta Donostialdeko Hiri Komunitatearen bilakaerari buruzko gogoeta-txosten bat aurkeztuko du urtero, baita Plan Estrategikoaren aplikazioan egindako aurrerapenari buruzkoa ere, adierazleen taula bat barneratuz.

c) Plangintza estrategikoaren kultura eta metodologia sustatu eta zabaltzea ekonomiaren eta gizartearen garapen-prozesuetan.

d) Donostiaren sustapen ekonomikoan eragin positiboa duten esparruetan elkarlanean aritzea, ekimen publikoa eta pribatua sustatuz.

e) Hirien sareetan eta, bereziki, Baiona - Donostia «korridoreko» eta Euskal Hiriko erakundeetan Donostiaren presentzia bideratzea. Hiriaren estrategia erraztu dezaketen eremuetan ahalik eta lankidetzarik handiena bilatzeko eta aplikazio-esperientziak erdiesteko helburuarekin, betiere.

f) Donostialdeko, Oarsoaldeko eta Bidasoaldeko Hiri Komunitatea osatzen duten udalerrien gogoeta estrategikorako prozesua bultzatzea, lurralde-esparru horietan lan egiten duten eskualde-erakundeekin elkarlanean.

20. artikulua. Osaera:

Gehienez ere 29 pertsonak osatuko dute, eta Gizarte Kontseiluaren Batzarrak izendatuko ditu, bertako Lehendakariak proposaturik eta Batzorde Iraunkorrek kontsultatu ondoren. Ordezkatzen dituzten erakundeek horrela erabakitzen dutenean berrituko dira, eta edonola ere, Udal Batzarra aldatzen denean.

— Batzarreko Lehendakaria.

— Batzarreko Lehendakariordea.

— Alkatea.

— Udal talde politiko bakoitzeko zinegotzi bat.

— Administrazio Zentraleko ordezkari bat.

— Eusko Jaurlaritzako ordezkari bat.

— Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkari bat.

— 19.F artikuluan aipatutako Eskualdeetako Udalerrietako Alkate bat.

— Donostiako Plan Estrategikoaren Zuzendaria.

— Kutzako ordezkari bat, Udalak erakunde honen fundazioan parte hartu duen aldetik.

— Adegiko ordezkari bat.

— Mondragon Corporación Cooperativako ordezkari bat.

— Gipuzkoako Ganberaren ordezkari bat.

— Matia Fundazioko ordezkari bat.

— Gizarte Elkartetako ordezkari bat.

— Kultura Elkartetako ordezkari bat.

— Kirol Elkartetako ordezkari bat.

— Auzo Elkartetako ordezkari bat.

— EHUko Gipuzkoako Campuseko Errektoreordea.

— Deustuko Unibertsitatearen Donostiako Campuseko ordezkari bat.

— Nafarroako Unibertsitatearen Donostiako Campuseko ordezkari bat.

— Zientzia eta teknologia sektoreko ordezkari bat (Teknologia Elkartegiak, Teknologia Zentroak, Ikerkuntza Unitateak).

— Kontseiluaren Batzarrak aukeratutako lau ordezkari.

21. artikulua. Funtzionamendua.

Batzordearen ardura izango da bere Lehendakaria eta Lehendakariordea aukeratzea. Kontseiluko Idazkaritza Udal Batzarreko Idazkaritza Nagusiaren titular den pertsonak edo eskuordetzen duen pertsonak beteko du.

Plan Estrategikoaren Bulegoaren ardura izango da Batzorde Delegatuaren lana koordinatzea, sustatzea eta horretan laguntzea.

V. TITULUA

KONTSEILUARI LAGUNTZEKO EGITURA

22. artikulua. *Bitartekoak eta baliabideak.*

Bere eginkizunak egoki burutzeko, Kontseiluak beharrezkoak diren baliabide ekonomiko, material eta pertsonal guztiak izango ditu, eta bere esku jarriko dira, Udalak ezarritako aurrekontu eta antolamendu arauekin bat etorritik.

Herritarren Partaidetzarako Areak Kontseiluari eta bertako kideei lagunduko die sustapen, antolamendu, deialdi eta arreta lanetan, kide guztiek eztabaidatu eta parte hartu ahal izateko metodologiak eskainiz.

1. ERANSKINA

Kontseilu Sektorialeetako ordezkarien izendapenak egitearren, 8. artikuluekin bat etorritik, kontuan hartu behar dira honako alderdiak:

- Emakumea.
- Gizarte Ekintza.
- Gazteak.
- Mugikortasuna.
- Ingurumena.
- Eskola.
- Eskola Kirola.
- Kirol Elkartek.
- Garapenaren aldeko lankidetzak eta heziketa.
- Merkataritza.
- Kultura.
- Turismo Sozietatearen Aholku Batzardea.
- Udal Planeamenduaren Kontseilua.

Era berean, organo berri hau abian jarri ondoren sor litezkeen Kontseilu Sektorialak ere kontuan hartuko dira.